



Idiazabalgo Udala

OHIKO UDALBATZARRA 2021eko urtarrilaren 28an

LEKUA: Udaletxeko Batzar Areto Nagusia

LEHENDAKARIA: Iñaki Alberdi Iparragirre (EH BILDU)

BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK:

Aloña Barandiaran Munduate (EH BILDU)

Iñaki Arriaran Murgiondo (EH BILDU)

Eunate Elio Cemborain (EH BILDU)

Aritz Ugarte Munduate. (EH BILDU)

Ioana Prados Alustiza (EH BILDU)

Ioritz Imaz Baztarrika (IZAL BAI)

Andoni Gomez Aldanondo (IZAL BAI)

Iker Zabaleta Urcelai (IZAL BAI)

Aitzol Mendizabal Malkorra (IZAL BAI)

EZ BERTARATUTAKO ZINEGOTZIA:

Igor Ariztimuño Iparragirre (IZAL BAI)

IDAZKARIA: Leire Ucin Soraluze

DEIALDIA: Lehenengoa.

ORDUA: Hasiera: 18:00etan

GAI ZERRENDA

1. Aurreko akta onartzea, hala badagokio.

Inork ez du ezer komentatzeko aurreko bilerako aktari buruz, beraz, AHO BATEZ onartzen da.

2. Etxez-etxeko laguntza zerbitzuaren eta Pilarrenea landa zentru balioaniztunaren kontrataziorako baldintza tekniko eta administratiboak onartzea, hala badagokio.



Idiazabalgo Udala

Ioana Prados zinegotziak adierazten du Gizarte Zerbitzuetako Batzordean onartuta dagoela, eta aldaketa bat egin dela erredakzioan: garbiketari buruz, igogailutik goiko pisura daramaten eskaileren garbiketa kontratuaren esleipendunaren kargu dihoala.

Bozkutzen dute, eta AHO BATEZ ONARTZEN honako hau ONARTZEN da:

LEHENENGOA. Euskadiko Kontratazio Plataforman lizitazioa argitaratzea, 35 eguneko epean enpresek proposamenak aurkeztu ditzaten.

BIGARRENA. Kontratazio mahaiak behin-behineko esleipenduna proposatuko dio Osoko Bilkurari, eta pleguetan ezartzen den dokumentazioa aurkeztu ondoren Behin betiko esleituko zaio kontratua

3. Oinherri Elkartearekin hitzarmena sinatzea onartzea, hala badagokio.

Eunate Elio zinegotziak hartzen du hitza; esaten du Oinherri Elkartearekin hitzarmena sinatzeko proposamena Gazteria eta Berdintasuneko eta Ogasun Batzordeak onartu dituela. Idiazabalgo Udalaren lan ildoetako bat Idiazabal herri hezitzailea izatea da, eta erronka hau aurrera eramateko era ezinhobea da Oinherri Elkartearekin bat egitea eta bere irizpideak ardatz bezala hartzea.

TXOSTEN-TEKNIKO PROPOSAMENA

Gaia: *Oinherri*

Aurrekariak:

2020 urtean, Oinherri Herri Hezitzaileak, Idiazabalgo Udalari egindako proposamena kontuan izanik zehazten dut:

Oinherri egitasmoa, zazpi eremutan garatzen eta aberasten den proiektu bat da: haurtzararen kultura, benetako parte hartzea eta erabakitzeko ahalmena, aisia hezitzailea, euskalduna, aniztasunean berdinean eta parekide, ingurumen naturala eta kulturala zaindu eta komunitate sarea eta auzolana.

Idiazabalen dugun aisia, hezkuntza, ingurumen,... egoera kontuan izanda egoki ikusten dut Oinherri elkartearekin hitzarmena sinatzea eta beharrezko diru laguntza ematea.

Herriko diagnostikoa egiteaz gain, aurrez aipatutako gai/beharrak kontuan izanda, hainbat formazio, jardunaldi, esperientzia ezberdinen sarean kokatzeko aukera izango dugu.



Idiazabalgo Udala

Idiazabalgo biztanle datuak kontuan izanik Udalaren ekarpena 1000€ izango da.

Txosten hau sinatzen dut, beharrezko eraginak izan ditzan 2021 udal aurrekontuan eta diru laguntzen plan estrategikoan.

Ioritz Imaz zinegotziak galdetzen du sare horrek ez ze izaera juridiko dauken Elkartek horrek; Eunate Eliok erantzuten dio sareak berak ez duela inungo izaerarik, Oinherri Elkartea irabazi gabeko Elkartek bat dela, eta hitzarmen hori Udala eta Oinherri artekoa dela. Bestalde, Ioritzek dio ea Gaztematika-ren antzekoa al den; Eunatek erantzuten dio Gaztematikak aisialdia bakarrik hartzen duela kontutan, baina Oinherri k aztertzen dituen eremuak askoz zabalagoak direla (kirola, kultura...)

Bozkaten dute eta honako hau ONARTZEN da:

LEHENENGOA. Idiazabalgo Udalak eta Oinherri hitzarmena sinatzea.

BIGARRENA. Kreditu gehigarrien espedientea behin betikoz onartzen denean Oinherri Elkarteari 1.000 euroko ordainketa egitea.

4.- 2021eko lehenengo kreditu aldaketa espedientea onartzea, hala badagokio.

Alkateak azaltzen du Oinherri Elkarteari hitzarmena sinatzeko partidari ez dagoela, beraz, kreditu gehigarriaren espedientea izapidetzea proposatzen da.

KREDITU GEHIGARRIEN PROPOSAMENA

Gastuen partida	Azalpena	Kredituak		
		Egungoak	Aldaketak	Behin betikoak
481.06.326.00	Oinherri Herri Hezkuntza	0	1.000	1.000



Idiazabalgo Udala

GUZTIRA		0	1.000	1.000

Kod.	Partida	Azalpena	Zenbatekoa
	870.01.000 2020	Diruzaintza gerakina	1.000
FINANTZAKETA GUZTIRA			1.000

Bozkatzen dute, eta **AHO BATEZ ONARTZEN DA:**

LEHENENGOA. Gipuzkoako Buletin Ofizialean 15 eguneko epean jendurrean jartzea alegazioak egonez gero, aurkeztuak izan daitezzen.

BIGARRENA. Alegaziorik egon ezean, erabakia behin betikotzat joko da.

5. Merkataritza eta ostalaritza sektoreetan jarduera ekonomikoa Covid-19ari aurre egiteko prestatzera bideratutako inbertsioak egiteko diru-laguntzen irizpena onartzea, hala badagokio.

Andoni Gomez zinegotziak azaltzen du herriko ostalari guztiak aurkeztu direla, bi ezik; 15.000 euroko kreditua aurreikusten zen eta 1.500 euro gelditu dira konsumitu gabe.

Hau da dirulaguntzaren txostena eta esleipen proposamena:

Turismo eta Garapen Ekonomiko Batzordeak, 2021eko urtarrilaren 25ean egindako bileran, emandako irizpena onartzekoa.

TXOSTEN TEKNIKOA

Balorazio hau 2020ko abenduaren 9an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako Idiazabalgo merkataritza eta ostalaritza sektoreetan ekonomia indarberritzeko, jarduera ekonomikoa Covid-19ari aurre egiteko prestatzera bideratutako inbertsioak egiteko diru-laguntzak emateko oinarri arautzailetako 4. eta 5. klausulak adierazitakoan oinarrituta egin da.



Idiazabalgo Udala

4. Diruz lagun daitezkeen jarduerak.

Covid-19ari aurre egiteko jarduera ekonomikoa prestatzeko inbertsio eta ekipamendu hauek, eta inbertsio horiek egiteko beharrezkoak diren ikerketak soilik lagunduko dira:

- Lokalak eta lan egiteko moduak egokitzea.*
- Merkataritza eta ostalaritza lokalak egokitzeak inbertsioak eta ekipamendua, hartara segurtasun eta osasun protokoloen irizpideak betetzeko.*
- Bezeroekin eta entitate hornitzaileekin lan erlazio berrietara egokitzeak inbertsioak eta ekipamendua.*

Diruz lagundu ahal izateko, proiektuen onartutako gutxienerako inbertsio-zenbatekoa 150,00 € izango da establezimendu bakoitzeko eta zenbateko horretara iristen ez diren eskaerak ez dira diruz lagunduko. Diruz lagundu daitezkeen gehieneko gastua, berriz, 5.000,00 €koa izango da establezimendu bakoitzeko.

Diruz lagundutako jarduerak 2020ko martxoaren 14tik abenduaren 31ra artean egingo dira. Halaber, fakturen datak eta bere ordainketak epealdi horren barruan egongo dira.

Ez dira diruz lagunduko goian azaldu diren gastuak, onuradunak helburu berberarekin beste edozein diru-laguntza, laguntza edo diru-sarrera jaso badu eta, banaka edo guztira, diruz laguntzen diren gastuen kostua gainditzen bada.

BEZa eta bestelako zeharkako zergak ez dira diruz lagunduko.

5. Onuradunek bete behar dituzten baldintzak. Eskaera aurkeztean, onuradunek hurrengo baldintza hauek bete beharko dituzte:

- Jarduera Ekonomikoei buruzko Zergaren matrikulan, txikizkako merkataritzaren eta ostalaritzaren sektoreei dagozkien epigrafe ekonomikoetan, alta emanda egongo dira eta Idiazabalen gauzatu beharko da jarduera.*
- Foru Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorrekiko betebeharrak egunean dauzkatela egiaztatu beharko dute, eta baita Idiazabalgo Udalarekiko betebeharrak ere.*
- Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorrak 13. artikuluko 2. eta 3. ataletan aurreikusitako debekurik ez dute izango.*



Idiazabalgo Udala

BALORAZIOA

Baldintzak betetzen dituzten eskaerak:

Erreg. Zki	Eskatzailea	Aurkeztutakoa BEZ gabe	Lagungarri gehienez 5000€ izanda
2020-2132	B-75008441	15606,1	5000
2020-2139	B-75185538	2158,44	2158,44
2020-2146	B-92606003	4765,17	4765,17
2020-2149	15958575-W	532,06	532,06
DENERA		23061,77	12455,67

Baztertutako eskaerak:

Erreg. Zki	Eskatzailea	Aurkeztutakoa BEZ gabe	Lagungarri gehienez 5000€ izanda	Kanporatzeko arrazoia
2020-2145	F-75042309	3771,36	3771,36	Idiazabalgo Udalarekin zerbitzu kontratu jarraitua du

Dirulaguntzaren banaketa honela egitea proposatzen da:

Erreg. Zki	Eskatzailea	Aurkeztutakoa BEZ gabe	Lagungarri gehienez 5000€ izanda
2020-2132	B-75008441	15606,1	5000
2020-2139	B-75185538	2158,44	2158,44
2020-2146	B-92606003	4765,17	4765,17



Idiazabalgo Udala

2020-2149	15958575-W	532,06	532,06
DENERA		23061,77	12455,67

Idiazabalen, 2021eko urtarrilaren 20an

Elixabet López de Munain

Turismo eta Garapen ekonomiko teknikaria

IRIZPENA

Turismo eta Garapen Ekonomikoko batzordekideek, 2021eko urtarrilaren 25ean egindako bileran, aho batez onartu dute:

Lehengoa. Organo emaileari Idiazabalgo merkataritza eta ostalaritza sektoreetan ekonomia indarberritzeko: jarduera ekonomikoa Covid-19ari aurre egiteko prestatzera bideratutako inbertsioak egiteko diru-laguntzen deialdian norgehiagokan banatzeko dauden 15.000,00€etako 12.455,67€ honela banatzea:

Erreg. Zki	Eskatzailea	Aurkeztutakoa BEZ gabe	Lagungarri gehienez 5000€ izanda, banatzeko proposamena
2020-2132	B-75008441	15606,1	5000
2020-2139	B-75185538	2158,44	2158,44
2020-2146	B-92606003	4765,17	4765,17
2020-2149	15958575-W	532,06	532,06
DENERA		23061,77	12455,67

Baztertutako eskaerak:



Idiazabalgo Udala

Erreg. Zki	Eskatzailea	Aurkeztutakoa BEZ gabe	Lagungarri gehienez 5000€ izanda	Kanporatzeko arrazoia
2020-2145	F-75042309	3771,36	3771,36	Idiazabalgo Udalarekin zerbitzu kontratu jarraitua du

Alde: Iñaki Arriaran Murgiondo J., Aloña Barandiaran Munduate A., Andoni Gomez Aldanondo J., Ioritz Imaz Baztarrika J.

Kontra: bat ere ez.

Abstentzioak: bat ere ez.

PROPOSAMENA

Turismo eta Garapen Ekonomikoko batzordekideek, 2021eko urtarrilaren 25an egindako bileran, aho batez onartu dute:

Lehenkoa. Organo emaileari Idiazabalgo merkataritza eta ostalaritza sektoreetan ekonomia indarberritzeko: jarduera ekonomikoa Covid-19ari aurre egiteko prestatzera bideratutako inbertsioak egiteko diru-laguntzen deialdian norgehiagokan banatzeko dauden 15.000,00€etako 12.455,67€ honela banatzea:

Erreg. Zki	Eskatzailea	Aurkeztutakoa BEZ gabe	Lagungarri gehienez 5000€ izanda, banatzeko proposamena
2020-2132	B-75008441	15606,1	5000
2020-2139	B-75185538	2158,44	2158,44
2020-2146	B-92606003	4765,17	4765,17
2020-2149	15958575-W	532,06	532,06
DENERA		23061,77	12455,67

Bigarrena. 12.455,67€ko gastua 1.481.02.430.00 2020 aurrekontu aplikazioari egoztea.



Idiazabalgo Udala

Hirugarrena. *Interesdunei jakinaraztea*

Laugarrena. *Kontabilitate unitateari jakinaraztea.*

Bozkutzen dute eta AHO BATEZ ONARTZEN da gai ordeneko 5. Puntua.

6. Idiazabalgo irisgarritasun plana onartzea, hala badagokio.

Alkateak hartzen du hitza; dio Hirigintza Batzordean onartu dela irisgarritasun plana; irisgarritasun aldetik diagnostiko bat egin dela Idiazabalgo herrian, eta Puntu konfliktiboak aztertu direla, gero ondorioak atera eta ekintzak zehaztu dituzte bere aurrekontuarekin. Guztira 2.500.000 euro aurreikusten dira “akats zuzenketa” horiek egiteko.

Bozkutzen dute, eta AHO BATEZ ONARTZEN da Idiazabalgo irisgarritasun plana.

7. Galdera eskaerak.

Ioritz Imaz zinegotziak ondoko gai hauei buruz galdetzen du:

Pistinatako idatziari erantzuna: Alkateak erantzuten dio prestatzen ari direla, eta lehenbailehen helaraziko diela.

Ampo S.Coop empresa ondoko txakurtegia: idazkariak erantzuten dio Udaletxera etorri zela interesduna eta berarekin eta arkitektuarekin egon zela, eta esan zitzaiola martxoak 31 zela azken eguna txakurtegi hori dagoen lekutik kentzeko.

Gurutze berriko proiektua: alkateak erantzuten dio hurrengo Hirigintza Batzordera eramango dela gaia.

Eudardo Irizar : Ioritzek esaten du komeni dela lehenbailehen proiektu hori martxan jartzea.

Udaltzaingoaren figura: Ioritzek dio komeni dela Udaltzaina pixkanaka konsolidatzen joatea, eta pedagogi lan bat egitea herritarrek barneratu dezaten, lehengo aguazila orain udaltzaingoa dela. Multak jartzen hastea ere badagokiola adierazten du; Alkateak erantzuten dio hortan ari direla, juridikoki aztertzen prozesua, alegia.



Idiazabalgo Udala

San Blasak: Orain San Blasak direla eta, loritzek dio zerbait ateratzea komeniko zela Udalaren partetik jendea kontzientziatzeko festarik ez dagoela. Alkateak erantzuten dio bere ustez ahal den garrantzi gutxiena ematea komeni dela, eta onena dela aipatu ere ez egitea.

Pilarreneako Covid kasuak: loritzek komentatzen du Pilarenea eguneko zentruan covid kasuak azaltzen hasi zirenean, EH BILDUn partetik ez zutela inungo informaziorik jaso kasuak irtetzen zihoazten heinean, eta hori ez zaiela ondo iruditzen . Herritar batek galdetu zien noiz irekitzen zen eguneko zentrua, eta galdera hori egin zienean oposizikoei, hauen erantzuna izan zen beste bost kasu agertu zirela. Esaten du beraien lekun egon baziren nola erreakzionatuko zuten.

Alkateak honak ohau erantzuten dio: beraien asmoa ez zela informaziorik ez ematea, berak ere ez zekiela zehazki zenbat positibo ziren. banaka irtetzen ari baitziren.

Ioana Pradosek hartzen du hitza; dio positiboen erantzuna ez zela bateratua izan; izan ere batzuk hirugarren proban eman zuten. Horregatik, ezin izan zuten komunikatu zifra zehatza. Bestalde, esaten dio loritzeri momentu horretan covi-19ak barne-antolaketan eragindako ondorioak zirela eta, esfortzu guztiak bideratu zituztela egoiliarrei erantzun egokiena emateko. Loritzek erantzuten dio ez duela inungo dudarik egiten hori egoki egingo zutela, baina bere obligazioa dela udal zerbitzu buru beala positiboen zenbaketaren berri ematea. Ioana Pradosek esaten dio ez zitzaiola ondo iruditu sare sozialetan argitaratu zutena, etekin bat ateratzeko helburuarekin. Eztabaidan jarraitzen dute argudio horiek defendatuz.

Azkenean, Alkateak esaten du hemendik aurrera konpromezua hartzen dutela informazio guztia emateko IZAL BAI-ri.

Behin puntu honetara iritsita, bilera bukatutzat ematen da arratsaldeko zortzirik hoge gutxitan, eta akta hau egin dut bertan esandakoa jasota gera dadin eta efektuak izan ditzan.

Idiazabalen, 2021eko urtarrilaren 28an.

O.I

ALKATEAK

Iñaki Alberdi Iparragirre

IDAZKARI KONTU HARTZAILEAK

Leire Ucin Soralue